

Kutxabankek Norbolsaren % 100 hartuko du bere gain, eta ‘Kutxabank Investment - Norbolsa’ izango du bere izen soziala

- Haren bazkide minoritarioek, Caja Ingenieros eta Laboral Kutxak, zituzten akzioen % 15 eskuratu du.

2024ko martxoaren 5ean. Kutxabankek **Norbolsako kapitalaren % 100** bereganatu du, eta aurrerantzean Finantza-taldearen Inbertsio Bankaren jarduera **‘Kutxabank Investment – Norbolsa’** izen sozial berriarekin garatuko du.

Kutxabankek Caja Ingenieros aseguru-zerbitzuen kreditu-kooperatibari eta Laboral Kutxari euskal enpresa horretan zuten kapital sozialaren % 10 eta % 5, hurrenez hurren, erosi ondoren gertatu dira mugimenduak; burtsa-bitartekaritzan eta kapital-merkatuetan balio erantsi handiko finantza-zerbitzuetan espezializatuta dago euskal enpresa.

Kutxabankeko kontseilari delegatua den Eduardo Ruiz de Gordejuelaren arabera, **“erosketa honek Norbolsako akziodun bakarra izateko aukera ematen dio Kutxabanki, eta gure apustua berresten du finantza-zerbitzuak, inbertsio-bankakoak eta kapital-merkatuetan enpresei aholkularitza emateko unitate espezializatuaren alde”**.

Aldaketa honek are gehiago sendotuko du Norbolsako Kutxabank Taldeari egiten zaion balio-ekarpena, gaur egun funtsezko zeregina betetzen duen Taldearen negozio-ildo berrietan, bai eta inbertsio-bankan eta enpresa, jaulkitzaile publiko eta inbertitzaile instituzionalentzat kapital-merkatuetara sartzeko zerbitzuetan dauden sinergiak eta gaitasunak ere.

Caja Ingenieros eta Laboral Kutxa 2012an sartu ziren Norbolsako akziodunen artean kapital-handitze banaren bidez, eta Norbolsarekin zuten konpromisoa indartu zuten, bere bezero garrantzitsuak baitziren. Bi erakundeek enpresaren bilakaeran egindako ekarpena aitortu nahi izan du Kutxabankek, eta urte hauetan guztietan izan dituzten lankidetzak zaindu eta indartzeko duen borondatea adierazi du.

Norbolsa 2023an

Kutxabank Taldearen balore-sozietateak **bilakaera oso positiboa** izan du 2023an jarduera-ildo guztietan.

Negozio-bankaren arloan, Norbolsak lidergo-posizionamendua sendotzen jarraitu du enpresa eta inbertitzaile instituzionalak kapital-merkatuetara sartzeari dagokionez. Epe luzerako eta laburrerako errenta finkoko 36 jaulkitzailerekin lan egin du, **2.500 milioi** eurotik gorako eskaria (+% 56) bereganatu du, eta % 26ko kuota MARFen ordaindukoen segmentuan. Gainera, bere M&A zerbitzuak indartu ditu, Kutxabank Taldeko unitate espezializatua izanik Kutxabank-Alantra akordio estrategikoaren inplementazioan.

Gainerako jarduera-ildoek bilakaera positiboa izan dute: emaitzaren hazkunde ona izan da securities services delakoetan, eta zorroak kudeatzeko aginduak ere asko gehitu dira.

2024an, Norbolsak erakunde ezartzaile gisa jardun du Enagasen bonu-jaulkipenean, eta, aurreko ekitaldietan bezala, koordinatzaile global gisa Euskal Autonomia Erkidegoko **zor jasangarriaren zortzigarren jaulkipenean**; jaulkipen hori arrakasta handiz egin zen 600 milioi euroko zenbatekoarekin, eta 4.000 milioi eurotik gorako eskari guztizkoa lortu zuen.

Kutxabank

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, Espainiako finantza-sisteman bankurik kaudimendunena, eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.